



## **12. AKTA**

**EZOHIKO PRESAZKO UDALBATZA**, 2006ko urriaren 5ean izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta seiko urriaren bostean. Bilkura-buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dute, eta bertan da Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria. Honako zinegotzi hauek etorri dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro andrea  
José Basterra Marfil jauna  
Lucía Querido Noceti andrea eta  
Juan Manuel Domínguez López jauna

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia jauna  
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi jauna  
José Manuel Anso Martínez jauna eta  
Joaquín Martínez Vidal jauna

EA-tik

Miriam Cano Puy andrea  
Marivi Roteta Mujika andrea eta  
Aitor Larrañga Burguera jauna

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana jauna

EB-tik

Jesús M<sup>a</sup> García Garde jauna eta  
Fco. Javier Pombo González jauna

Atxiki gabeko zinegotzia

Juan Ramón González Medrano jauna



Ezohiko presazko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du bere ezin etorria arrazoitu José Luis Martínez de Espronceda Luiña jauna. Behin-behineko kontu-hartzaile Karmele Lizaso Ubera ere bertan izan da.

Bilkura-buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko, eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren, gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1.- Presa berrestea: apirilaren 2ko Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.2.b artikulua.**

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, aparteko deialdiaren presa berretsi du, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.2.b) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

## **2.- Jaizkibia, S.A.**

### **\* Estatutuak aldatzea.**

### **\* Administrazio Kontseiluko eta Batzordeko ordezkaria izendatzea.**

Pasaiako Udaleko Udalbatzak, 2005eko irailaren 12ko osoko bilkuran, "JAIZKIBIA, S.A." sozietate anonimoa eratzeko erabakia hartu zuen. Sozietate hori Estatuko Administrazio Orokorrarekin, EAeko Administrazioarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta Donostiako, Errenteriako, Irungo, Lezoko, Hondarribiko eta Oiartzungo Udalekin batera eratuko zuen. Hauxe zen sozietatearen xedea:

- a) Azterketak, planak eta proiektuak egitea, hiri-eremua osorik berritzeko eta ingurumenaren nahiz egoera sozio-ekonomikoaren kalitatea hobetzeko egokiak diren hirigintzako, azpiegituretako eta beste zernahiko jarduerak antolatu eta burura eman daitezen, Pasaialdeko, Jaizkibelgo garraiobide anitzeko korridoreko eta Bidasoa Beheko eremu geografikoan.
- b) Kudeaketa tresnak sortzea, aurreko paragrafoan aipatutako jarduerak aurrera eramateko zehaztutako lurralde-esparruan.
- c) Lurralde Ereduaren Eskema Gidatzailean eta Jardueren Plan Integralean zuzeneko parte-hartzea izatea, eta bertan erabakitako ekintzak gauzatzea.



Gainera, aipatutako udalbatza horretako erabakiaren laugarren atalean, sozietate horren Estatutu-proiektua onartu zen; bigarren artikuluan jasotzen zen aipatutako xedea.

Hala ere, egun, sozietatea osatuko duten administrazio publikoei beharrezkoa iruditzen zaie estatutu sozialen bigarren artikulua aldatzea. Aldaketa-proposamen hori xedeari honako d) atal hau eranstea da:

*“d) Lanen planifikazioa, azterketa, proiektua eta haiek burutzea Estatuko Administrazio Orokorren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo artikulua honen a) paragrafoan adierazitako udalen eskumena denean, administrazio publiko horiek eskatutako laguntza ematea, jarduera haiek aurrera eramateko”.*

Bestalde, udalbatzaren erabaki horren hirugarren atalean, sozietatea osatzeko unean, udal honek harpidetzen dituen akzioen nominalaren % 25 ordaintzea onartu zen.

Egun, igarotako denbora kontuan izanik, beharrezkoa iruditzen zaie sozietate horren administrazio publiko sustatzaileei, osaera-eskritura ematen den garaian, kapital sozialaren % 100 ordaintzea; horrenbestez, beharrezkoa da erabaki horren hirugarren atala aldatzea.

Bestalde, aipatu beharra dago etorkizuneko bazkideek honako hau erabaki dutela: Administrazio Kontseilua, hasiera batean, 12 kontseilarik osatzea. Hiru Estatuko Administrazio Orokorak izendatuko ditu; beste hiru, EAEko Administrazioak; hiru, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Aipatutako hamabiko kopuru hori osatzeko falta diren gainerako hiru kontseilariak sozietatean parte hartuko duten zazpi udalen artean izendatuko dira; hau da, Donostiaren, Errenteriaren, Irunen, Lezoren, Pasaiaren, Hondarribiaren eta Oiartzunen artean.

Udal honi ezinbestekoa iruditzen zaio Pasaiak kontseilari finkoa izatea sozietate horretan, bere eskubideak eta interesak defendatzeko, udalerrria sozietate horren xedearen erdigunean dagoelako.

Azkenik, esan beharra dago laster emango dela sozietatea osatzeko eskritura publikoa. Hori egin ahal izateko, beharrezkoa da, batetik, alkateari ahalmena ematea eskritura publikoa emateko ekitaldira Pasaiako Udalaren izenean joateko. Beharrezkoa da, halaber, alkatea sozietateko Batzar orokorreko kide izendatzea, udal honen ordezkari jarduteko.

Horregatik guztiagatik, Pasaiako Udalaren udalbatzak bereizita aipatzen diren erabaki hauek hartu ditu:



## **A) Estatutuak aldatzea.**

Udalbatzak, bertaraturako zinegotzien adostasunez, eta gaur egindako Eledunen Batzordearen proposamenari jarraiki,

### ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Erabaki honen azalpen-zatian adierazitakoaren haritik, “Jaizkibia, S.A.” sozietate anonimoaren Estatutu-proiektuaren bigarren artikulua aldatzea; hau da, udalak 2005eko irailaren 12an egindako udalbatzak onartutakoa. Artikulua, horrenbestez, honela geratuko da:

*“2. artikulua.- Xedea.*

*Hau da sozietatearen xedea:*

- a) Azterketak, planak eta proiektuak egitea, hiri-eremua osorik berritzeko eta ingurumenaren nahiz egoera sozio-ekonomikoaren kalitatea hobetzeko egokiak diren hirigintzako, azpiegituretako eta beste zernahiko jarduerak antolatu eta burura eman daitezzen Pasaialdeko, Jaizkibelgo garraiobide anitzeko korridoreko eta Bidasoa Beheko area geografikoan.*
- b) Kudeaketa tresnak sortzea, aurreko paragrafoan aipatutako jarduerak zehaztutako lurralde-esparruan aurrera eramateko.*
- c) Lurralde Ereduaren Eskema Gidatzailean eta Jardueren Plan Integralean zuzeneko parte-hartzea izatea, eta bertan erabakitako ekintzak gauzatzea.*
- d) Lanen planifikazioa, azterketa, proiektua eta haiek burutzea Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo artikulua honen a) paragrafoan adierazitako udalen eskumena denean, administrazio publiko horiek eskatutako laguntza ematea jarduera haiek aurrera eramateko.*

*Jarduera horiek honela egin ditzake sozietateak: oso-osorik edo zati batean, zuzenean edo zeharka, antzeko helburua edo helburu bera duten sozietateetan partaidetza izanik.”*

BIGARRENA.- Udalak 2005eko irailaren 12ko udalbatzan onartutako erabakiaren hirugarren atala ere aldatzea. Honela geratuko da atal hori:

*“HIRUGARRENA.- Sozietatea osatzen den uean bertan, partaidetza sozialei dagokien nominalaren % 100 ordaintzea, udal-aurrekontuko 1.07.00.853.511.70.01.2005 baimendutik.”*

HIRUGARRENA.- **Alkateari** sozietate osatzeko eskritura publiko emateko ekitaldira Pasaiako Udalaren izenean joateko ahalmena ematea, baita hori gauzatzeko eta izapidetzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzekoa ere.

## **B) Administrazio Kontseiluko eta Batzordeko ordezkaria izendatzea.**

Udalbatzak, alkatearen kalitatezko botoaren bidez,

### ERABAKI DU

LEHENENGOA.- **Udaleko alkate Izaskun Gómez Cermeño andrea** Pasaiako Udalaren ordezkari izendatzea Jaizkibia, S.A. sozietate anonimoaren Batzar Orokorrean.

BIGARRENA.- Ildo berean, herriko **alkate Izaskun Gómez Cermeño andrea** sozietate horretako Administrazio Kontseiluan Pasaiako Udalaren ordezkari gisa parte hartzeko izendatzea.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen bozketaren emaitza: bi bozketatan, ZORTZI (8) botoko berdinketa izan da. Aldeko ZORTZI (8) boto eman dituzte PSE-EE (5) EB-IU (2) alderdietako zinegotziek eta atxiki gabeko Juan Ramón Medrano (1) zinegotziak; aurkako botoa eman dute EAJ-PNV (4), EA (3) eta PP (1) alderdietako ZORTZI (8) zinegotziek. Alkatearen kalitatezko botoaren bidez ebatzi da.
- Aktan jasota gera dadin, honako egoera eta parte-hartze hauek izan dira:
  - Administrazio Kontseiluko eta Batzordeko ordezkaria izendatzeko, bi hautagaitza aurkeztu dira: batetik, José Luis Goikoetxea Garmendia jaunarena; bestetik, Izaskun Gómez Cermeño andrearena.
  - Guillermo Sánchez-Berra jaunak esan du bi proposamen daudenez, alkateari bere hautagaitza kentzeko eskatzen diola, Madrilen, 1998ko uztailaren 7an, ordezkari politikoren artean sinatutako alderdiz aldatzeari buruzko jokabide-kode politikoan oinarrituta. Horren kopia banatu die bertaratutakoei eta, ondoren, akordioaren bigarren atalaren bigarren paragrafoa irakurri du. Honela dio:  
  
*“Ildo berean, alderdiz aldatutako jendea ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, erakunde publikoetako gobernuetako gehiengoak osatzeko, gehiengoari eusteko edo aldatzeko, baita haien aldetik datorren ekimenik ez babesteko eta alderdiz aldatzea ez sustatzeko ere, ekonomia-, araudi- eta protokolo-izaerako disuasio-neurriak hartuta.”*
- Alkateak esan du ez duela bere hautagaitza kenduko, ez baitago alderdiz aldatu den politikorik udalean; talde bateko kideen arteko tirabira soilik dago, eta, horren ondorioz, atxiki gabeko zinegotzi bat. Horrenbestez, presazko udalbatza denez, ezin da deialdiaren gai-zerrendatik



kanpoko eztabaidarik sartu. Esan du, eragozpenik ezean, gai hori landuko dela Alderdi Popularreko zinegotziak etorkizuneko udalbatzaren batera mozioren bat eraman nahi badu.

- José Luis Goikoetxea jaunak esan du aktan jasota geratzea nahi duela alkateak zazpi udalerriek adostutako akordioari bere horretan eutsi balio, bere taldea ez litzatekeela akordio horri lotuta sentituko; hori gertatu ez denez, poztu egiten da, baita Pasaiaren berariazkotasuna argi geratu izanaz ere.
- Miriam Cano andrea bat dator Goikoetxea jaunak esan duenarekin, eta gaineratu du testu bat adostu dela Pasaia aurrera eramateko, sozietate anonimo horretan kontseilari bat ez izateak eragingo lukeen desaforoari elkarrekin aurre egiteko.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilera 09:30ean, eta nik, behin-behineko idazkariak, hori guztia idatzi eta ziurtatzen dut eta lehendakari andrearekin batera sinatzen dut.